

Txostena

Informe

EAEko Udal Entitateen Kontuak

Cuentas de las Entidades Locales de la CAPV

2020





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK.....	5
AZTERTUTAKO RATIOAK.....	7
I. SARRERA.....	11
II. ONDORIOAK.....	14
II.1 UDALEN KONTUAK	14
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK	16
III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK 2020/12/31N.....	19
III.1 UDAL ADIERAZLEAK	19
III.1.1 Finantza adierazleak	20
III.1.2 Aurrekontuaren adierazleak	28
III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK	38
III.2.1 Finantza adierazleak	38
III.2.2 Aurrekontuaren adierazleak	41
ERANTSITAKO LIKIDAZIOAK	
http://www.tvcp.eu/informes.asp?idioma=EU	
ERANSKINAK	45
A.1 KANPOKO KONTROLA IZAN DUTEN ENTITATEAK	45
A.2 PERTSONALEKO GASTUAK	46
A.2.1 Udalak	46
A.2.2 Udalaz gaindiko entitateak	47
A.3 KONTU OROKORREN AZTERKETAN HUTSAK	47
A.3.1 Udalak	47
A.3.2 Udalaz gaindiko entitateak	54
EKONOMIAREN ETA FINANTZAREN INFORMAZIOA	
http://www.tvcp.eu/informes.asp?idioma=EU	
1. ERAKUNDE AUTONOMOAK, ERAKUNDE PUBLIKOAK, SOZETATE PUBLIKOAK ETA FUNDAZIOAK	
2. AURREKONTU-LIKIDAZIOEN ETA PLANTILLAREN LABURPENA	
3. FINANTZA RATIOAK	
4. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA	
ALEGAZIOAK.....	57



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS Y DEFINICIONES	61
RATIOS ANALIZADOS.....	63
I. INTRODUCCIÓN.....	67
II. CONCLUSIONES	70
II.1 CUENTAS MUNICIPALES	70
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES	72
III. RATIOS E INDICADORES A 31/12/2020.....	76
III.1 INDICADORES MUNICIPALES	76
III.1.1 Indicadores Financieros	77
III.1.2 Indicadores Presupuestarios.....	85
III.2 INDICADORES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES.....	95
III.2.1 Indicadores Financieros	95
III.2.2 Indicadores Presupuestarios.....	98
LIQUIDACIONES AGREGADAS	
http://www.tvcp.eu/informes.asp	
ANEXOS.....	103
A.1 ENTIDADES CON CONTROL EXTERNO	103
A.2 GASTOS DE PERSONAL.....	104
A.2.1 Ayuntamientos.....	104
A.2.2 Entidades Supramunicipales	105
A.3 DEFICIENCIAS DEL ANÁLISIS DE LAS CUENTAS GENERALES.....	105
A.3.1 Ayuntamientos.....	105
A.3.2 Entidades Supramunicipales	112
INFORMACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA	
http://www.tvcp.eu/informes.asp	
1. ORGANISMOS AUTÓNOMOS, ENTIDADES PÚBLICAS, SOCIEDADES PÚBLICAS Y FUNDACIONES	
2. RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES PRESUPUESTARIAS Y PLANTILLA	
3. RATIOS FINANCIEROS	
4. EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES MAGNITUDES	
ALEGACIONES	115

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 22a
Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 2022



LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK

10/2003 FA	10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
LH/LLHH	Lurralde Historikoa / Lurralde historikoak.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AZTERTUTAKO RATIOAK

FINANTZAREN ETA ONDAREAREN ADIERAZLEAK

- Berehalako likidezia Funts likidoak / Pasibo arrunta.
- Likidezia epe laburrera $(\text{Funts likidoak} + \text{Kobratzeko eskubideak}) / \text{Pasibo arrunta.}$
- Likidezia orokorra Aktibo arrunta / Pasibo arrunta.
- Zorpetzea biztanleko $(\text{Pasibo arrunta} + \text{Pasibo ez arrunta}) / \text{Biztanle kopurua.}$
- Zorpetzea $(\text{Pasibo arrunta} + \text{Pasibo ez arrunta}) / (\text{Pasibo arrunta} + \text{Pasibo ez arrunta} + \text{Ondare garbia}).$
- Zorpetze maila Pasibo arrunta / Pasibo ez arrunta.
- Cash-Flow $(\text{Pasibo ez arrunta} + \text{Pasibo arrunta}) / \text{Eskudiruzko fluxu garbiak, eskudiruzko fluxuen egoera kudeatzeko jarduerengatik.}$
- Ondare eta ekonomia-emaizaren kontuaren ratioak:
 - Sarrerren egitura: $\text{Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak} / \text{Kudeaketa arrunteko sarrerak.}$
 $\text{Jasotako dirulaguntzak eta transferentziak} / \text{Kudeaketa arrunteko sarrerak.}$
 $\text{Salmentak eta zerbitzu-ematea} / \text{Kudeaketa arrunteko sarrerak.}$
 $\text{Kudeaketa arrunteko gainerako sarrerak} / \text{Kudeaketa arrunteko sarrerak.}$
 - Gastuen egitura: $\text{Langileria-gastuak} / \text{Kudeaketa arrunteko gastuak.}$
 $\text{Transferentziak eta emandako dirulaguntzak} / \text{Kudeaketa arrunteko gastuak.}$
 $\text{Hornidurak} / \text{Kudeaketa arrunteko gastuak.}$
 $\text{Kudeaketa arrunteko gainerako gastuak} / \text{Kudeaketa arrunteko gastuak.}$
 - Gastu korronteen estaldura: $\text{Kudeaketa korronteko gastuak} / \text{Kudeaketa korronteko sarrerak.}$

ONDARE ETA AURREKONTUKO FINANTZA-ADIERAZLEAK

- Zorpetze finantzarioa
 - Diru-sarrera korronteen gainean $[\text{Pasibo korrontea (finantzarioa)} + \text{Pasibo ez-korrontea (finantzarioa)}] / \text{Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).}$
- Zorpetze finantzarioa
 - amortizatze epe balioetsia $[\text{Pasibo korrontea (finantzarioa)} + \text{Pasibo ez-korrontea (finantzarioa)}] / \text{Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.)} - \text{Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.).}$



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SARREREN AURREKONTUKO ADIERAZLEAK

- Sarrerren aurrekontuaren Egikaritzza Eskubide aitortu garbiak / Sarrerren behin betiko aurreikuspenak.
- Autonomia Eskubide aitortu garbiak (1etik 3ra, 5, 6 eta 8 kap. + jasotako transferentziak) / Eskubide aitortu garbiak.
- Autonomia fiskala Zerga izaerako eskubide aitortu garbiak / Eskubide aitortu garbiak.
- Jasotako diru-laguntzekiko mendekotasun indizea Eskubide aitortu garbiak (4 eta 7 kap.) / Eskubide aitortu garbiak.
- Kobrantzak gauzatzea Diru-bilketa garbia / Eskubide aitortu garbiak.
- Kobrantza osorako batez besteko aldia 1etik 3rako kap. [Kobratzeko dauden eskubideak (1etik 3rako kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 3rako kap.)] *365.

GASTUEN AURREKONTUKO ADIERAZLEAK

- Gastuen aurrekontuaren egikaritzza Obligazio aitortu garbiak / Gastuen kreditu behin betikoak.
- Langileria-gastuen indizea Langileria-gastuak / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
- Inbertsio-ahalegina Obligazio aitortu garbiak (6 eta 7 kap.) / Obligazio aitortu garbiak.
- Ekitaldiaren finantza karga Obligazio aitortu garbiak (3 eta 9 kap.) / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
- Gastua biztanleko Obligazio aitortu garbiak / Biztanle kopurua.
- Biztanleko inbertsioa Obligazio aitortu garbiak (6 eta 7 kap.) / Biztanle kopurua.
- Ordainketak gauzatzea Gauzatutako ordainketak / Obligazio aitortu garbiak.
- 2. eta 6. kap. ordaink. batez best. epe globala [Ordaintzeko dauden obligazioak (2. eta 6. kap.) / Obligazio aitortu garbiak (2. eta 6. kap.)] * 365.

AURREKONTUKO EMAITZAREN ETA/EDO DIRUZAINZA GELDIKINAREN ADIERAZLEAK

- Aurrezki gordin ez finantzarioa biztanleko [Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) / Obligazio aitortu garbiak (1, 2 eta 4 kap.)] / Biztanle kopurua.
- Aurrezki garbia biztanleko Aurrezki gordin ez finantzarioa – Finantza karga (gastuen 3 eta 9 kap.) / Biztanle kopurua.
- Aurrezki gordinaren indizea [Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) – Obligazio aitortu garbiak (1etik 4rako kap.)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
- Aurrezki gordinaren indize ez finantzarioa [Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.) – Obligazio aitortu garbiak (1, 2 eta 4 kap.)] / Eskubide aitortu garbiak (1etik 5erako kap.).
- Biztanleko superabita edo defizita Doitutako aurrekontu emaitza / biztanle kopurua.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Zalantzazko kobragarritasuna duten zordunen indizea Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak / kobratzeko dauden zordunak.

EKITALDI ITXIETAKO AURREKONTUKO HARTZEKODUNEN ORDAINKETAK

- Ekitaldi itxietako kobrantzak gauzatzea Kobrantzak / Eskubideen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta baliogabetzeak).
- Ekitaldi itxietako ordainketak gauzatzea Ordainketak / Obligazioen hasierako saldoa (+ - aldaketak eta baliogabetzeak).





I. SARRERA

HKEE honek hezurmamitu duen Lanerako Programa betez, EAEko udalen eta udalaz gaindiko entitateen 2020ko kontu orokorrak aztertu dira, ikuspegi formala eta kualitatiboa oinarri hartuta.

Toki Entitateentzat aurrekontu gaietan erregulazio orokor oinarrizkoaosatzen dute Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak.

EAEren esparruan Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusiek onartutako indarreko arautegia honako hau da: 3/2004 FA, 10/2003 FA eta 21/2003 FA. Foru dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko foru arau hauek lurralde historiko bakoitzean eta horietan toki entitateen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra jaso dira. Hiru lurralde historikoetako toki entitateen aurrekontu likidazioari eta Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa, Aurrekontuko Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Aurreko urteetan egin dugun legez, txosten-diagnostiko hau EAEEn 2020ko ekitaldian zeuden 252 udal administrazioei (ez ditu besarkatzen erakunde autonomoak, sozietate publikoak, entitate publikoak eta mendeko fundazioak) eta udalaz gaindiko 62 entitateei soil-soilik dagokie. Hona hemen horien xehakapena:

- 17 partzuergo.
- 34 mankomunitate.
- 6 kuadrilla.
- 5 partzoneria.

EAEren udal multzoaren kontu orokorrak eta lurralde historikoen araberako banaketa, eta udalaz gaindiko entitate multzoaren kontuak eta emandako zerbitzu motaren araberako banaketa likidazioak gehituzetik eskuratu dira, ia gehienak fiskalizatu gabeak, 238 udalek (% 94,44) eta udalaz gaindiko 56 entitatek (% 90,32) iritsarazi dizkigutenak.

Ikuskatutako kontuak 21 udalek eta udalaz gaindiko 11 entitatek aurkeztu dituzte eta HKEEk, gainera, 10 udal eta udalaz gaindiko entitate 1 fiskalizatu ditu (ikus A.1).

Aztertutako udal eta udalaz gaindiko entitateek antolamenduan 80 erakunde autonomo, 101 udal sozietate publiko eta 4 enpresa-erakunde publiko besarkatzen dituzte, ondotik erakutsiko dugun laburpenaren arabera. Xehakapena honako lotunean dago jasoa:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp?idioma=EU>



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERAKUNDE KOPURUA			
	ERAKUNDE AUTONOMOAK	SOZietate Publikoak	ENPRESA ERAK. Publikoak
Udaletakoak:			
Araba	8	11	-
Bizkaia	44	38	2
Gipuzkoa	26	41	2
Udalaz gaindiko entitateak:			
Partzuergoak	-	4	-
Mankomunitateak	2	7	-
Kuadrillak	-	-	-
Partzoneriak	-	-	-
EAE GUZTIRA	80	101	4

Gainera, udalek 20 fundaziotan parte hartzen dutela baieztatu dute.

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.202.120ko biztanleria hartu da aintzat, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 238 udaletan 2020ko urtarrilaren 1ean zeuden biztanleak, alegia.

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BIZT. KOP. 20/1/1
> 50.000	6	1.034.586
20.001 - 50.000	13	409.382
10.001 - 20.000	25	360.740
5.001 - 10.000	27	186.637
1.001 - 5.000	76	169.634
< 1.001	91	41.141
EAE GUZTIRA	238	2.202.120
ARABA	47	329.618
BIZKAIA	108	1.148.201
GIPUZKOA	83	724.301

Hona hemen kontuak aztertu zaizkien udalaz gaindiko 56 entitateetan, zerbitzu motaren arabera artatutako biztanleria:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

JARDUERA	ERAKUNDE KOPURUA	BIZTANLERIA ARTATUA
1. Ura eta saneamendua	11	1.914.243
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	8	369.049
3. Hiri hondakin solidoak	9	1.564.909
4. Gizarte ongizatea	10	255.886
5. Arabako kuadrillak	6	79.944
6. Sustapena eta irakaskuntza, euskara eta lanerako prestak.	6	322.391
7. Partzoneriak eta baso ustiapena	4	58.621
8. Suteak itzaltzea	1	25.328
9. Garraioak	1	757.788

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

- 2020ko ekitaldiko kontu orokorren analisia. Azterlan hau oinarri izan da toki entitateek, informatzeko betebeharrari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.
- Udal eta udalaz gaindiko entitate guztien kontu orokorren atal diren balantzeen, ekonomia-ondareko emaitzaren kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa egin da eta ezargarria zaien arautegian eskatutako informazio osoa barne hartzen dutela eta agiri guztiak elkarren artean koherenteak direla egiaztatu da.
- Udal eta udalaz gaindiko erakunde guztien balantzeen, ekonomia-ondareko emaitzaren kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa, ekonomia-finantza izaerako adierazleak eskuratzeko.

Udalek eta udalaz gaindiko entitateek igorritako agirien edukia aztertzean hiru akats mota bereizi ditugu:

- Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta kontu orokorra onesteko epeetan eragina dutenak.
- Kontu Orokorraren informazioaren eduki kualitatiboan eragina duten akatsak.
- Aurreko ekitaldietako Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin negatiboen finantzaketa moldeari erreferentzia egiten dietenak.

Txostenaren datu ekonomikoak milako eurotan daude emanak eta dezimalik ez erakusteko biribildu dira; datuek beti balio zehatz bakoitzaren biribiltzea erakusten dute eta ez biribildutako datuen batuketa.

II. ONDORIOAK

II.1 UDALEN KONTUAK

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauek agintzen dute Toki Entitateek HKEEri Kontu Orokorra aurkeztuko diotela, beren berariazko arautegiak agintzen duen terminoetan behar bezala onetsia; berebat, HKEEren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 9.5 artikulua agintzen du nahitaezkoa dela Epaitegi honi Toki Entitateen Aurrekontuen likidazioari dagokion dokumentazioa igortzea, egin edo onesten denetik aurrera hilabeteko epean. Aduna, Aizarnazabal, Alegria-Dulantzi, Amezketeta, Añana, Arantzazu, Belauntza, Ea, Gaintza, Iruraiz-Gauna, Ondarroa, San Millán, Zaratamo eta Zeraingo udalek urratu egin dute obligazio hori (ikus A.3.1).

Segidan azalduko ditugun ondorioak EAEko 238 udalek igorritako datuetatik eskuratu ditugu; horietatik guztietatik, 4k aurrekontuen likidazioa soilik igorri dute (ikus A.3.1). Datu horien arabera, EAEko Udalen % 94,44k aitortzen dizkio kontuak Epaitegi honi.

A.3.1 eranskinean banaka zehazten dira aztertutako 238 udaletan aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu 64 udaletan ez dela batere akatsik azaleratu, aztertutako guztien gainean % 26,89; horietatik 15 Arabako LHkoak dira; 23 Bizkaiko LHkoak eta 26, Gipuzkoako LHkoak.

Onespen epeak

- Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. 90 udalek aurrekontuak 2020ko lehenengo seihilekoan onartu zituzten eta 2k, berriz, ekitaldiaren bigarren seihilekoan. 238 udaletatik 137k soilik (% 57,57) onartu dituzte kontuak ekitaldia hasi aurretik.

Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2020/01/01 baino lehenago	137	% 57,57
2020ko 2. hiruhilekoan	68	% 28,57
2020ko 2. hiruhilekoan	22	% 9,24
2020ko 2. seihilekoan	2	% 0,84
Aurrekontu luzatua	9	% 3,78

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n jartzen du Erakundearen lehendakariak aurrekontuak onesteko epemuga. 29 udalek, % 12,18k, urratu egin dute aurrekontuko araudiak ezarritako epea eta 209 udalek, % 87,82k, berriz, 2021eko apirilaren 1 baino lehenago onartu dute.

Hona hemen aurrekontuen likidazioaren onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2021/04/01 baino lehenago.....	209	% 87,82
2021/04/01 eta 2021/07/31 bitartean	27	% 11,34
Ebidentziarik/informaziorik gabe	2	% 0,84

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.4 artikulua hurrengo ekitaldiko uztailaren 31n jartzen du Entitatearen Osoko Bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. 61 udalek arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute; 7 udaletan ez dago jasota onetsi denik ere, eta udaletatik 170etan (% 71,43) agindutako epean onartu da.

Hona hemen Kontu Orokorra onesteko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2021/08/01 baino lehenago.....	170	% 71,43
2021/08/01 eta 2021/12/31 bitartean	57	% 23,95
2022/01/1 baino beranduago	4	% 1,68
Ez dago jasoa onartu denik.....	7	% 2,94

Kontu Orokorraren eta Aurrekontuko Likidazioaren eduki formala

Kontu Orokorra osatzen dute: balantzeak, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontuak, ondare garbian aldaketen egoerak, eskudiruzko fluxuen egoerak, aurrekontuaren likidazio egoerak eta memoriak; eta Udalak ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuko gaitetan gauzatu duen kudeaketa erakusten du. Kontu Orokorra mamitu eta onartzeko obligazioa hiru lurralde historikoen foru arauetan dago xedatua eta hala ez egiteak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSAK	UDAL KOPURUA
Ez dute barne hartu:	
Balantzea	3
Ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua	3
Ondare garbian aldaketen egoera	14
Eskudiruzko fluxuen egoera	9
Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.....	1
Oroitidazkia.....	9
Diru-kontaketa aktak	4
Banku-ohar edo -ziurtagiriak eta kontziliazioak	32
Aurrekontuko eta kontularitzako emaitzen kontziliazioaren egoera-orria	15
Diruzaintza-kontua	11
Udal zorrari buruzko informazioa	7

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- Udaletan gauzatzen den ondare-kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 58 udalek ez dituzte Balantzean edo ekonomia eta ondarearen emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak txertatzen eta horietatik 51, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagozkie.
- Diruzaintza-kontua aitortu duten 227 udaletatik 14k deskoadratzeak dituzte, kontuen mugimenduak ez datozelako bat egikaritzarekin.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

UDAL KOPURUA	
AURREKONTUKO AKATSAK	
Diruz. Geldik. zalantzazko kobrantz. zuzkidura kobragar. analisisa baino baxuagoa	1
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza	3
Ez dira kalkulatzeko ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak	1
Oker kalkulaturako diruzaintza geldikina	1
Ez da kalkulatzeko Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako	3
24 hilabetetik gorako antzintasuna duten zordunak, kobragarritasun-azterketarik gabe eta Diruzaintza geldikina murriztu gabe	3
ONDAREKO AKATSAK:	
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin	5
Zalantzazko kobragarritasuneko zuzkidura, balantzean jaso gabea	1
Balantzean kaudimen-gabeziarako zuzk. diruz. geldikinarena baino txikiagoa	4

II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

Honako entitate hauek ez dituzte 2020ko ekitaldiko kontuak bidali, eta ez dute bete LH bakoitzaren Aurrekontuen Foru Arauetako 63.5 artikulua: Arratiako Udalen Mankomunitatea, Kuartangoko Ur Partzuergoa, Iruña Okako Ur Partzuergoa, Haranako Ur Partzuergoa, La Lomba Ur Partzuergoa eta Gipuzkoako Partzoneria Txikia (ikus A.3.2).

Hemen azalduko ditugun ondorioak EAEko udalaz gaindiko 56 entitatek igorritako datuetatik eskuratu ditugu; horietatik 3k ez dute Kontu Orokorrari buruzko dokumentazioa igorri (ikus A.3.2). Horrek esan nahi du EAEko udalaz gaindiko entitateen % 90,32k aitortzen dizkio tela kontuak Epaitegi honi.

A.3.2 eranskinean zehazten dira udalaz gaindiko entitate bakoitzean azaleratu diren akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien udalaz gaindiko 19 entitatetan (aztertutako udalerri guztien % 33,93) ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 7 Arabako Lurralde Historikoan daude, 2 Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 10 Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak

- Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. 20 entitatek aurrekontuak 2020ko lehenengo seihilekoan onartu zituzten eta 56 entitateetatik 26k baizik ez zituzten ekitaldia hasi aurretik onartu, % 46,43k, alegia.

Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako entitate kopurua:

AURREKONTUAREN ONESPENA	ERAKUNDE KOPURUA	%
2020/01/01 baino lehenago.....	26	% 46,43
2020ko 1. hiruhilekoa.....	14	% 25,00
2020ko 2. hiruhilekoa.....	6	% 10,72
2020ko 2. seihilekoa.....	4	% 7,14
Aurrekontu luzatua.....	6	% 10,71

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49.1 artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n jartzen du Erakundearen lehendakariak aurrekontuak onesteko epemuga. 9 entitatetan likidazioen % 16,07 aurrekontuko araudiak finkatutako data ondoren onartu da, eta 48 entitatek, % 85,71, 2021eko apirilaren 1a baino lehenago onartu dute.

Hona hemen, udalaz gaindiko entitateek aurrekontuaren likidazioa zein alditan onetsi duten erakutsiko digun taula:

LIKIDAZIOAREN ONESPEN DATA	ENTITATE KOPURUA	%
2021/04/01 baino lehenago.....	48	% 85,71
2021/04/01 eta 2021/07/31 bitartean.....	8	% 14,29

- Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.4 artikulua hurrengo ekitaldiko uztailaren 31n jartzen du Entitatearen Osoko Bilkurak aurrekontua onesteko epemuga. 7 entitatek arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 5 entitatetan ez dago jasota onetsi denik ere.

Onespen aldien arabera sailkatutako erakunde kopurua honakoa da:

KONTU OROKORRAREN ONESPEN DATA	ENTITATE KOPURUA	%
2021/08/01 baino lehenago.....	44	% 78,57
2021/08/01 eta 2021/12/31 bitartean.....	7	% 12,50
Ez dago jasoa onartu denik.....	5	% 8,93



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontu Orokorraren eta Likidazioaren eduki formala

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

AKATSAK:	ENTITATE KOPURUA
Ez dute barne hartu:	
Balantzea	3
Ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua	3
Ondare garbian aldaketan egoera	6
Diru fluxuen egoera-orria	5
Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria	1
Oroitidazkia	3
Diru-kontaketa aktak	2
Banku-ohar edo ziurtagiriak eta kontziliazioak	6
Aurrekontu eta kontularitzako emaitzen kontziliazioaren egoera-orria	5
Diruzaintza kontua	3
Udal zorrari buruzko informazioa	4

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- 14 entitatek ez dituzte balantzean edo ekonomia eta ondarearen emaitzen kontuan ibilgetuko amortizazioak jaso; akats hori zuzendu egin behar da finantzen egoera-orriek ondarearen egoera zuzen isla dezaten.
- Udalaz gaindiko entitate batek 24 hilabetetik gorako antzinatasuneko zorrak ditu, ez du kobragarritasunaren azterlanik eta ez du inongo kopururik murriztu diruzaintza geldikinetik.

Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

	ENTITATE KOPURUA
AURREKONTUKO AKATSAK:	
Ez dira kalkulatzen ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak	4
Ez da kalkulatzen Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako	5
Diruzaintza kontuan deskoadratzeak daude	1
ONDAREKO AKATSAK:	
Zorren eranskina ez dator bat balantzearekin	1

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

Elbarri Psikikoen aldeko Mankomunitatea Ranzari tailerrak gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuen 18/12/31n eta finantzatu gabe dauka 20/12/31n; horrek 10/2003 F Aren 49.4 artikulua urratzen du.



III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK 2020/12/31N

Txosten honetan jaso ditugun adierazleak Udal Korporazioen Kontu Orokorraren adierazleak abiaburu hartuta kalkulatu dira; adierazle horiek Kontuen Epaitegiaren toki esparruko Koordinazio-batzordeak eta autonomia erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoek onartu zituzten 2013ko maiatzaren 7an, zeinak gerora toki administrazioarentzako kontabilitateko jarraibide berrietara egokitu diren eta 2020ko ekitaldiko urteko kontuei ezargarriak zaizkienak.

III.1 UDAL ADIERAZLEAK

Udal adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 238 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Horietatik eskuratu diren likidazioen adierazleak eta laburpena banan-banan erakusten dira hemen:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp?idioma=EU>

III.1.1 FINANTZA ADIERAZLEAK

Berehalako likidezia, epe laburreko likidezia eta likidezia orokorra

Ratio hauek erakusten dute udalek zorrean dituzten ordainketei aurre egiteko duten gaitasuna. Hona hemen biztanleria-geruzaren arabera batez besteko balioak:

GERUZA	UDAL KOP.	BEREHALAKO LIKIDEZIA	LIKIDEZIA EPE LAB.	LIKIDAZIO OROKORRA
ARABA				
>50.000	1	% 38,56	% 105,76	% 105,76
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 241,77	% 382,69	% 382,69
5.001-10.000.....	1	% 87,40	% 161,19	% 161,19
1.001-5.000.....	16	% 437,86	% 553,06	% 553,06
<1.001	27	% 475,57	% 619,42	% 619,42
ARABA BATEZ BESTE	47	% 76,80	% 151,20	% 151,20
BIZKAIA				
>50.000	3	% 163,43	% 234,05	% 234,05
20.001-50.000.....	8	% 344,03	% 392,92	% 392,92
10.001-20.000.....	9	% 201,56	% 268,59	% 268,59
5.001-10.000.....	13	% 322,41	% 392,15	% 392,15
1.001-5.000.....	38	% 439,06	% 504,92	% 515,36
<1.001	37	% 446,81	% 497,73	% 548,02
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 242,88	% 308,29	% 310,37
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 184,77	% 388,19	% 388,19
20.001-50.000.....	5	% 212,99	% 312,91	% 313,14
10.001-20.000.....	14	% 496,33	% 569,45	% 571,78
5.001-10.000.....	13	% 365,30	% 486,21	% 486,37
1.001-5.000.....	22	% 336,16	% 415,37	% 415,53
<1.001	27	% 562,61	% 757,97	% 757,97
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 305,77	% 439,01	% 439,69
EAE				
>50.000	6	% 113,67	% 205,65	% 205,65
20.001-50.000.....	13	% 292,56	% 361,49	% 361,58
10.001-20.000.....	25	% 339,00	% 414,29	% 415,35
5.001-10.000.....	27	% 334,11	% 428,19	% 428,26
1.001-5.000.....	76	% 418,11	% 495,91	% 502,33
<1.001	91	% 476,86	% 583,41	% 608,63
EAE BATEZ BESTE	238	% 213,96	% 299,82	% 300,96



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zorpetzea

Zorpetze-mailen baloraziorako biztanle-geruzaren arabera kalkulatu dira biztanleko zorpetze-adierazleak, finantza zorraren maila sarrera korronteei dagokienez eta 2020/12/31n finantza zorra amortizatzeko balioetsitako aldia.

GERUZA	UDAL KOP.	ZORRA BIZTANLEKO (*)	SARR. KORR. G. FINANTZA ZORRA	FINAN. ZORRA AMORT. BALIOETS. EPEA (**)
ARABA				
>50.000.....	1	777	% 33,91	9
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	218	% 0,55	-
5.001-10.000.....	1	943	% 63,85	3
1.001-5.000.....	16	282	% 5,61	-
<1.001.....	27	384	% 10,95	-
ARABA BATEZ BESTE	47	672	% 28,47	5
BIZKAIA				
>50.000.....	3	549	% 6,34	1
20.001-50.000.....	8	254	% 7,83	1
10.001-20.000.....	9	378	% 9,48	1
5.001-10.000.....	13	219	% 4,18	-
1.001-5.000.....	38	326	% 6,41	-
<1.001.....	37	343	% 3,76	-
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	409	% 6,78	1
GIPUZKOA				
>50.000.....	2	751	% 36,59	8
20.001-50.000.....	5	444	% 11,95	1
10.001-20.000.....	14	428	% 13,33	1
5.001-10.000.....	13	297	% 6,07	-
1.001-5.000.....	22	316	% 13,21	1
<1.001.....	27	309	% 6,35	-
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	518	% 20,78	2
EAE				
>50.000.....	6	654	% 20,47	3
20.001-50.000.....	13	316	% 9,30	1
10.001-20.000.....	25	392	% 11,03	1
5.001-10.000.....	27	275	% 6,75	-
1.001-5.000.....	76	316	% 8,12	-
<1.001.....	91	347	% 6,41	-
EAE BATEZ BESTE	238	484	% 14,78	2

(*) Biztanleko eurotan.

(**) Ekitaldi kopurua.

EAEren batez besteko zorra biztanleko 484 euro da. Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitzeko Udalak biztanleko 1.590 euroko zorpetzea du 2020/12/31n, batez bestekoa baino nabarmen handiagoa.



Finantza zorra amortizatzeko balioetsitako epeak adierazten du finantza zorra zenbat ekitalditan amortizatu daitekeen, egungo sarrera eta gastu arrunten mailarekin. 2020ko ekitaldian toki entitateen multzoaren sarrera korronte guztien gaineko finantza zorraren proportzioa % 14,78koa da; gastu korronteak deduzituz gero, bi ekitalditako batez besteko epea beharko litzateke finantza zorra osotasunean kitatzeko sarrera korronteen soberakinaren bidez. Ratio honen banako azterketan, 4 udaletan finantza zorra amortizatzeko balioetsitako epea 4 urtetik gorakoa da (batez bestekoa baino % 150 epe handiagoa) eta horietatik batean 16 urtetik gorakoa da.

Honako taula honetan zorpetzearen adierazlea kalkulatzen da; adierazle honek neurtzen du zein lotura dagoen erakundeak hirugarrenen aurrean bere gain hartzen duen pasiboaren eta erakundearen finantzaketa-iturri guztien (baliabide propioak eta besteenak) artean. Zorpetze-erlazioa zutabeak pasibo korrontearen eta ez-korrontearen arteko zatidura neurtzen du.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GERUZA	UDAL KOP.	ZORPETZEA	ZORPETZE- ERLAZIOA
ARABA			
>50.000	1	% 16,59	% 178,04
20.001-50.000	-	-	-
10.001-20.000	2	% 4,10	% 2.322,27
5.001-10.000	1	% 11,68	% 33,71
1.001-5.000	16	% 3,54	% 474,14
<1.001	27	% 4,33	% 230,88
ARABA BATEZ BESTE	47	% 12,81	% 185,05
BIZKAIA			
>50.000	3	% 9,54	% 68,50
20.001-50.000	8	% 6,70	% 142,36
10.001-20.000	9	% 6,42	% 266,94
5.001-10.000	13	% 2,73	% 331,16
1.001-5.000	38	% 2,52	% 312,11
<1.001	37	% 1,97	% 454,75
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 6,55	% 105,31
GIPUZKOA			
>50.000	2	% 19,55	% 36,82
20.001-50.000	5	% 10,06	% 81,82
10.001-20.000	14	% 6,94	% 77,88
5.001-10.000	13	% 4,86	% 154,80
1.001-5.000	22	% 6,28	% 93,16
<1.001	27	% 1,68	% 169,77
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 10,12	% 58,71
EAE			
>50.000	6	% 13,01	% 77,44
20.001-50.000	13	% 7,91	% 110,30
10.001-20.000	25	% 6,55	% 130,74
5.001-10.000	27	% 3,84	% 177,95
1.001-5.000	76	% 3,22	% 221,46
<1.001	91	% 2,31	% 282,20
EAE BATEZ BESTE	238	% 8,46	% 96,43

Toki entitateen multzoari dagokionez, zorpetzeak pasibo guztiaren gainean % 8,46 egiten du, nahiz tamaina handiagoko udaletan proportzioa % 13,01era iristen den; horren ondorioz, tamaina txikiagoa duten udalen aldean kanpoko finantzaketarekiko mendekotasun handiagoa daukate; bada, 1.000 biztanletik beherako udaletan ehunekoa % 2,31koa da.

EAEko Udalek foru aldundiei itunpeko zergetan udal partaidetzagatiko likidazio negatiboen kontzeptuan guztira 53 milioi euro dituzte itzultzeko, eta horietatik 46 milioi euro Bizkaiko udalerriei dagozkie eta 7 milioi euro, Arabakoei.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Cash-Flow

Honako taula honetan erakusten da kudeaketa jarduerengatiko eskudiruzko fluxu garbiek zein neurritan estaltzen duten erakundearen pasiboa, biztanleria geruzaren arabera bereizita.

GERUZA	UDAL KOP.	CASH-FLOW
ARABA		
>50.000	1	(% 1.465,13)
20.001-50.000.....	-	-
10.001-20.000.....	2	% 275,48
5.001-10.000.....	1	% 243,69
1.001-5.000.....	16	% 84,31
<1.001	27	% 57,49
ARABA BATEZ BESTE	47	% 2.449,17
BIZKAIA		
>50.000	3	% 1.144,93
20.001-50.000.....	8	% 315,44
10.001-20.000.....	9	% 289,15
5.001-10.000.....	13	% 173,63
1.001-5.000.....	38	% 121,05
<1.001	37	% 82,11
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 426,87
GIPUZKOA		
>50.000	2	% 773,17
20.001-50.000.....	5	% 166,91
10.001-20.000.....	14	% 153,84
5.001-10.000.....	13	% 135,54
1.001-5.000.....	22	% 124,47
<1.001	27	% 44,56
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 246,58
EAE		
>50.000	6	% 1.863,21
20.001-50.000.....	13	% 224,13
10.001-20.000.....	25	% 190,06
5.001-10.000.....	27	% 155,95
1.001-5.000.....	76	% 114,17
<1.001	91	% 62,08
EAE BATEZ BESTE	238	% 393,13



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ekonomiaren eta ondarearen emaitzaren kontuko ratioak

Sarreraren egitura:

Ondoko ratio hauek erakusten dute ondarearen emaitza ekonomikoko kontuaren sarrera bakoitzak erakundearen kudeaketa arrunteko sarrera guztien aldean zenbateko garrantzia erlatiboa duen.

GERUZA	UDAL KOP.	ZERGA ETA HIRIG. SARRERAK	JASOTAKO TRANS. ETA DIRUL.	SALMENTAK ETA ZERB. EMAK.	KUDEAK. ARRUN. GAIN.SARR.
ARABA					
>50.000.....	1	% 37,70	% 56,47	% 3,58	% 2,25
20.001-50.000.....	-	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 45,31	% 53,00	% 0,16	% 1,53
5.001-10.000.....	1	% 46,42	% 51,71	% 0,17	% 1,70
1.001-5.000.....	16	% 46,41	% 49,02	% 0,62	% 3,95
<1.001.....	27	% 39,95	% 54,81	% 1,03	% 4,21
ARABA BATEZ BESTE	47	% 39,29	% 55,38	% 2,89	% 2,44
BIZKAIA					
>50.000.....	3	% 35,98	% 58,37	% 0,23	% 5,42
20.001-50.000.....	8	% 36,51	% 61,21	% 1,19	% 1,09
10.001-20.000.....	9	% 38,87	% 59,17	% 0,53	% 1,43
5.001-10.000.....	13	% 39,05	% 57,52	% 0,88	% 2,55
1.001-5.000.....	38	% 42,17	% 54,86	% 0,26	% 2,71
<1.001.....	37	% 23,83	% 69,26	% 0,57	% 6,34
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 36,95	% 58,80	% 0,50	% 3,75
GIPUZKOA					
>50.000.....	2	% 45,46	% 51,85	% 0,13	% 2,56
20.001-50.000.....	5	% 40,72	% 56,20	% 0,39	% 2,69
10.001-20.000.....	14	% 40,58	% 56,44	% 0,12	% 2,86
5.001-10.000.....	13	% 39,13	% 57,11	% 1,50	% 2,26
1.001-5.000.....	22	% 36,14	% 61,54	% 0,33	% 1,99
<1.001.....	27	% 39,06	% 58,16	% 0,12	% 2,66
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 41,97	% 55,10	% 0,33	% 2,60
EAE					
>50.000.....	6	% 38,80	% 56,26	% 0,99	% 3,95
20.001-50.000.....	13	% 38,23	% 59,16	% 0,86	% 1,75
10.001-20.000.....	25	% 40,32	% 57,16	% 0,27	% 2,25
5.001-10.000.....	27	% 39,29	% 57,16	% 1,17	% 2,38
1.001-5.000.....	76	% 41,32	% 55,61	% 0,34	% 2,73
<1.001.....	91	% 32,79	% 61,84	% 0,61	% 4,76
EAE BATEZ BESTE	238	% 39,06	% 56,98	% 0,81	% 3,15



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastuen egitura:

Ondoko ratio hauek erakusten dute ondarearen emaitza ekonomikoko kontuaren sarrera bakoitzak erakundearen kudeaketa arrunteko gastu guztien aldean zenbateko garrantzia erlatiboa duen.

GERUZA	UDAL KOP.	PERTSON. GASTUAK	EMANDAKO TRANSF. ETA DIRUL.	HORNIDURA	GAINER. GASTU KORRONTEAK
ARABA					
>50.000.....	1	% 45,11	% 13,75	-	% 41,14
20.001-50.000.....	-	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 42,33	% 12,91	-	% 44,76
5.001-10.000.....	1	% 23,85	% 6,30	-	% 69,85
1.001-5.000.....	16	% 23,54	% 14,63	-	% 61,83
<1.001.....	27	% 23,96	% 14,43	-	% 61,61
ARABA BATEZ BESTE	47	% 41,73	% 13,69	-	% 44,58
BIZKAIA					
>50.000.....	3	% 29,61	% 25,42	% 5,70	% 39,27
20.001-50.000.....	8	% 35,30	% 16,10	% 4,95	% 43,65
10.001-20.000.....	9	% 36,79	% 15,10	% 1,47	% 46,64
5.001-10.000.....	13	% 33,02	% 15,11	% 5,24	% 46,63
1.001-5.000.....	38	% 30,78	% 16,21	% 2,22	% 50,79
<1.001.....	37	% 37,17	% 13,73	-	% 49,10
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 31,91	% 20,87	% 4,70	% 42,52
GIPUZKOA					
>50.000.....	2	% 28,39	% 34,31	% 0,01	% 37,29
20.001-50.000.....	5	% 37,33	% 19,32	% 0,07	% 43,28
10.001-20.000.....	14	% 35,22	% 18,72	% 0,05	% 46,01
5.001-10.000.....	13	% 32,33	% 15,53	% 0,03	% 52,11
1.001-5.000.....	22	% 35,59	% 17,23	-	% 47,18
<1.001.....	27	% 36,82	% 14,06	% 0,91	% 48,21
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 32,64	% 24,44	% 0,04	% 42,88
EAE					
>50.000.....	6	% 32,90	% 25,05	% 2,87	% 39,18
20.001-50.000.....	13	% 36,13	% 17,42	% 2,95	% 43,50
10.001-20.000.....	25	% 36,35	% 16,99	% 0,54	% 46,12
5.001-10.000.....	27	% 32,43	% 15,07	% 2,58	% 49,92
1.001-5.000.....	76	% 30,65	% 16,17	% 1,19	% 51,99
<1.001.....	91	% 32,62	% 14,05	% 0,21	% 53,12
EAE BATEZ BESTE	238	% 33,71	% 20,99	% 2,32	% 42,98



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastu arrunten estaldura:

Adierazle honek azaltzen du kudeaketa arrunteko sarrerek zein mailatan estaltzen dituzten kudeaketa arrunteko gastuak.

GERUZA	UDAL KOP.	GASTU KORRONT. ESTALDURA
ARABA		
>50.000	1	% 100,81
20.001-50.000	-	-
10.001-20.000	2	% 109,04
5.001-10.000	1	% 96,27
1.001-5.000	16	% 101,28
<1.001	27	% 87,51
ARABA BATEZ BESTE	47	% 100,75
BIZKAIA		
>50.000	3	% 100,09
20.001-50.000	8	% 100,81
10.001-20.000	9	% 93,17
5.001-10.000	13	% 95,63
1.001-5.000	38	% 86,66
<1.001	37	% 82,95
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 97,55
GIPUZKOA		
>50.000	2	% 105,02
20.001-50.000	5	% 100,92
10.001-20.000	14	% 97,18
5.001-10.000	13	% 95,32
1.001-5.000	22	% 92,05
<1.001	27	% 86,79
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 100,07
EAE		
>50.000	6	% 101,52
20.001-50.000	13	% 100,85
10.001-20.000	25	% 96,62
5.001-10.000	27	% 95,50
1.001-5.000	76	% 90,68
<1.001	91	% 85,37
EAE BATEZ BESTE	238	% 98,92



III.1.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

Sarrerren aurrekontuaren adierazleak

Atal honetan erakusten da toki entitateek 2020ko sarrerren aurrekontuan izan duten egikaritza, honako hauek bereiziaz: behin betiko aurreikuspenen egikaritzako adierazleak; eskubide aitortuen kobrantzetan egikaritza-maila, eta 1etik 3rako kapituluaren kobranta osoaren batez besteko aldia, biztanleria-geruzaren arabera sailkatuak:

GERUZA	UDAL KOP.	SARREREN AURREKONT. EGIKARITZA	KOBRANTZAK GAUZATZEA	KOBRANTZ. BATEZ BEST. EPE GLOBALA 1ETIK 3RAKO KAP. (*)
ARABA				
>50.000.....	1	% 78,50	% 82,74	82
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 69,58	% 87,30	92
5.001-10.000.....	1	% 74,38	% 88,27	62
1.001-5.000.....	16	% 68,68	% 83,29	38
<1.001.....	27	% 81,43	% 80,77	35
ARABA BATEZ BESTE	47	% 76,86	% 83,11	76
BIZKAIA				
>50.000.....	3	% 84,86	% 92,61	66
20.001-50.000.....	8	% 80,88	% 94,48	33
10.001-20.000.....	9	% 81,75	% 93,65	37
5.001-10.000.....	13	% 79,35	% 91,96	26
1.001-5.000.....	38	% 73,93	% 92,38	29
<1.001.....	37	% 80,58	% 94,45	11
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 82,06	% 93,09	49
GIPUZKOA				
>50.000.....	2	% 69,29	% 82,58	54
20.001-50.000.....	5	% 71,77	% 90,37	39
10.001-20.000.....	14	% 73,34	% 90,95	37
5.001-10.000.....	13	% 72,90	% 90,19	34
1.001-5.000.....	22	% 83,83	% 91,32	31
<1.001.....	27	% 75,03	% 92,37	14
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 71,93	% 87,54	43
EAE				
>50.000.....	6	% 78,53	% 87,51	67
20.001-50.000.....	13	% 77,31	% 92,98	35
10.001-20.000.....	25	% 75,79	% 91,63	42
5.001-10.000.....	27	% 75,94	% 91,00	31
1.001-5.000.....	76	% 75,26	% 90,51	31
<1.001.....	91	% 79,41	% 89,70	21
EAE BATEZ BESTE	238	% 77,45	% 89,62	51

(*) Egun kopurua.

Toki-entitateen multzoarentzat behin betiko aurreikuspenen egikaritza maila % 77,45 izan da eta eskubide aitortuen egikaritza maila, berriz, % 89,62.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Sarreraren egikaritza maila handiena, % 79,41, 1.000 biztanletik beherako udalei dagokie.

Zerga-sarrerak kobratzeko ekitaldiko batez besteko aldia 51 egun izan da.

Sarreraren aurrekontuaren beste adierazle batzuk

Aurreko atalean adierazitako adierazleez gain, hala nola gauzatze- eta betearazpen-maila eta batez besteko kobrantza-aldia, autonomia-adierazleak eta jasotako dirulaguntzen mendekotasun-indizea kalkulatu dira, eta horiek helburudun xedea duten diru-sarreraren ehunekoak adierazten ditu.

GERUZA	UDAL KOP.	AUTONOMIA	AUTONOMIA FISKALA	JASOTAKO DIRULAG. MENDEKOTASUN- INDIZEA
ARABA				
>50.000.....	1	% 88,52	% 35,13	% 8,51
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 88,85	% 41,88	% 11,15
5.001-10.000.....	1	% 90,91	% 45,74	% 9,09
1.001-5.000.....	16	% 75,40	% 43,89	% 24,60
<1.001.....	27	% 63,78	% 37,79	% 36,22
ARABA BATEZ BESTE	47	% 86,27	% 36,68	% 11,43
BIZKAIA				
>50.000.....	3	% 94,99	% 34,74	% 5,01
20.001-50.000.....	8	% 89,98	% 49,70	% 10,02
10.001-20.000.....	9	% 91,87	% 36,48	% 7,10
5.001-10.000.....	13	% 93,56	% 36,40	% 5,64
1.001-5.000.....	38	% 89,51	% 38,63	% 10,43
<1.001.....	37	% 85,62	% 20,80	% 11,44
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 92,79	% 38,30	% 6,97
GIPUZKOA				
>50.000.....	2	% 86,46	% 38,03	% 7,13
20.001-50.000.....	5	% 93,30	% 37,21	% 6,70
10.001-20.000.....	14	% 91,90	% 38,93	% 7,26
5.001-10.000.....	13	% 87,40	% 38,82	% 12,14
1.001-5.000.....	22	% 88,05	% 33,82	% 11,74
<1.001.....	27	% 83,02	% 35,80	% 16,57
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 89,14	% 37,92	% 8,07
EAE				
>50.000.....	6	% 91,12	% 35,73	% 6,43
20.001-50.000.....	13	% 91,19	% 45,16	% 8,81
10.001-20.000.....	25	% 91,65	% 38,29	% 7,50
5.001-10.000.....	27	% 90,49	% 37,83	% 8,90
1.001-5.000.....	76	% 86,66	% 38,29	% 13,25
<1.001.....	91	% 78,21	% 29,71	% 20,38
EAE BATEZ BESTE	238	% 90,51	% 37,92	% 8,04



Autonomia-ratioak erakusten du toki entitateek tokiko eskumenak bideratzeko autonomia osoz balia ditzaketen sarreraren ehunekoa. 2020rako adierazle honen batez besteko emaitza % 90,51 izan da.

Autonomia fiskalaren ratioak erakusten du izaera fiskaleko sarreraren proportzioa entitatearen sarrera guztien gainean. Adierazle hau udalerriaren gaitasun fiskalaren, ordenantzetan jasotako tarifen eta kudeaketaren eraginkortasunaren araberakoa da. 2020ko ekitaldian, batez bestekoa % 37,92 izan zen.

Azkenik, 2020an jasotako dirulaguntzen mendekotasun indizea % 8,04 izan zen toki entitateen multzorako.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastuen aurrekontuaren adierazleak

Atal honek erakusten du toki entitateek egikaritutako 2020ko gastuen aurrekontua eta xehetasunez jasotzen dira behin betiko kredituen egikaritzea adierazleak, obligazio aitortuen gauzatze maila eta 2. eta 6. kapituluaren ordainketa osoaren batez besteko aldia, biztanleria-geruzaren arabera sailkatuak; hona hemen:

GERUZA	UDAL KOP.	GASTUEN AURREKONT. EGIKARITZA	ORDAINKETAK GAUZATZEA	ORDAINK. OSOAREN BATEZ BESTEKO EPEA 2. ETA 6. KAP. (*)
ARABA				
>50.000.....	1	% 79,04	% 88,62	90
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 79,44	% 92,38	41
5.001-10.000.....	1	% 69,37	% 92,00	42
1.001-5.000.....	16	% 66,61	% 90,12	39
<1.001.....	27	% 70,56	% 93,86	24
ARABA BATEZ BESTE	47	% 77,33	% 89,33	75
BIZKAIA				
>50.000.....	3	% 86,14	% 93,13	52
20.001-50.000.....	8	% 80,90	% 92,12	45
10.001-20.000.....	9	% 79,85	% 90,91	49
5.001-10.000.....	13	% 74,88	% 94,57	32
1.001-5.000.....	38	% 68,10	% 91,81	44
<1.001.....	37	% 70,34	% 92,93	42
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	% 81,34	% 92,68	48
GIPUZKOA				
>50.000.....	2	% 70,13	% 96,03	15
20.001-50.000.....	5	% 76,40	% 92,49	46
10.001-20.000.....	14	% 72,00	% 91,80	49
5.001-10.000.....	13	% 74,12	% 93,43	34
1.001-5.000.....	22	% 82,95	% 93,74	36
<1.001.....	27	% 76,14	% 93,58	37
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	% 72,84	% 93,91	33
EAE				
>50.000.....	6	% 79,50	% 92,85	52
20.001-50.000.....	13	% 79,15	% 92,26	46
10.001-20.000.....	25	% 75,19	% 91,54	48
5.001-10.000.....	27	% 74,34	% 93,93	33
1.001-5.000.....	76	% 71,33	% 92,04	41
<1.001.....	91	% 71,91	% 93,38	35
EAE BATEZ BESTE	238	% 77,52	% 92,59	47

(*) Egun kopurua.

Toki entitateen multzo osoari dagokionez, egikaritzea epea % 77,52 izan da eta obligazio aitortuen betetze-maila % 92,59; batez besteko ordaintzeko aldia, berriz, 47 egunekoa.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gastuen aurrekontuaren beste adierazle batzuk

Aurreko atalean jasotako adierazleez gain, alderdi jakin batzuen gaineko informazioa ematen duten beste ratio batzuk kalkulatu dira biztanle geruzaren arabera sailkatuak, egikaritutako gastuaren informazioa osatzen laguntzen dutenak; hona hemen:

Euroak/biztanleko						
GERUZA	UDAL KOP.	BIZTANLEKO GASTUA	LANGILE GAST. INDIZEA	BIZTANLEKO INBERTS.	INBERTSIO AHALEGINA	EKITALD. FIN. KARGA
ARABA						
>50.000.....	1	1.433	% 46,26	143	% 9,98	% 1,97
20.001-50.000.....	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	1.418	% 46,20	286	% 20,18	% 0,01
5.001-10.000.....	1	1.214	% 22,59	142	% 11,66	% 11,66
1.001-5.000.....	16	1.353	% 25,07	367	% 27,10	% 1,40
<1.001.....	27	1.513	% 27,36	535	% 35,33	% 2,03
ARABA BATEZ BESTE	47	1.424	% 43,35	190	% 13,36	% 1,92
BIZKAIA						
>50.000.....	3	1.418	% 30,07	136	% 9,60	% 0,39
20.001-50.000.....	8	1.144	% 36,14	82	% 7,13	% 1,51
10.001-20.000.....	9	1.151	% 34,63	117	% 10,19	% 1,04
5.001-10.000.....	13	1.167	% 31,75	123	% 10,54	% 2,18
1.001-5.000.....	38	1.320	% 26,77	216	% 16,38	% 1,66
<1.001.....	37	1.453	% 33,89	259	% 17,82	% 1,52
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	1.292	% 31,77	128	% 9,91	% 0,96
GIPUZKOA						
>50.000.....	2	1.666	% 30,09	220	% 13,21	% 4,64
20.001-50.000.....	5	1.430	% 37,87	232	% 16,25	% 2,67
10.001-20.000.....	14	1.309	% 34,33	166	% 12,70	% 3,48
5.001-10.000.....	13	1.167	% 31,75	123	% 10,54	% 2,60
1.001-5.000.....	22	1.250	% 32,52	179	% 14,30	% 4,77
<1.001.....	27	1.777	% 32,14	587	% 33,03	% 2,39
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	1.468	% 32,85	212	% 14,41	% 3,73
EAE						
>50.000.....	6	1.482	% 33,86	158	% 10,67	% 1,84
20.001-50.000.....	13	1.237	% 36,75	131	% 10,56	% 1,92
10.001-20.000.....	25	1.258	% 35,31	157	% 12,49	% 2,36
5.001-10.000.....	27	1.277	% 31,16	174	% 13,66	% 2,64
1.001-5.000.....	76	1.306	% 28,04	232	% 17,75	% 2,46
<1.001.....	91	1.549	% 31,65	421	% 27,19	% 1,89
EAE BATEZ BESTE	238	1.370	% 33,86	165	% 12,03	% 2,05



Ekitaldiko finantza karga ratioak interesak ordaintzeko eta zorra amortizatzeko erabili behar den sarrera korronteen ehunekoa zein den adierazten du. 2020ko ekitaldian, batez bestekoa % 2,05 izan da.

Pertsonaleko gastuen indizearen adierazleak neurtzen du entitateko pertsonaleko gastuek zein proportziotan xurgatzen dituzten eragiketa korronteetako eskubide aitortuak. 2020ko ekitaldian, adierazle horren emaitza toki entitateen multzo osorako % 33,86 izan da.

2020ko ekitaldian udalen biztanleko gastua 1.370 euro izan da eta horietatik inbertsioetarako batez beste biztanleko 165 euro eman dira.

Aurrekontu emaitzaren eta diruzaintza geldikinaren adierazleak

Aurrezki gordin ez finantzarioak erakusten du finantzazkoak ez diren gastu arruntei behin aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den sarrera arrunten atala. Nolanahi den ere, aurrezki gordinak finantza kargaren parekoa edo handiagoa izan behar du, izan ere, bestela udalak ezingo lioke karga horren ordainketari aurre egin eta ez luke inbertsioetarako auto-finantzaketarik izango.

Aurrezki garbiak finantza kargaren ordainketari aurre egin ondoren geratzen den aurrezki gordin ez-finantzarioaren atala islatzen du. Udalak baliabide propioekin inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna adierazten du eta positiboa behar du izan, kapitalezko diru-sarrerak ez daitezen gastu korronteak finantzatzeko erabil.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak/biztanleko

GERUZA	UDAL KOP.	AURREZKI GORD. EZ FINANTZ. BIZTANLEKO	AURREZKI GAR.B. BIZTANLEKO	SUPERAB./ DEFIZITA BIZTANLEKO
ARABA				
>50.000.....	1	51	25	43
20.001-50.000.....	-	-	-	-
10.001-20.000.....	2	22	22	(72)
5.001-10.000.....	1	346	198	97
1.001-5.000.....	16	275	258	240
<1.001.....	27	336	310	323
ARABA BATEZ BESTE	47	84	59	62
BIZKAIA				
>50.000.....	3	107	102	4
20.001-50.000.....	8	82	65	86
10.001-20.000.....	9	130	118	117
5.001-10.000.....	13	163	137	160
1.001-5.000.....	38	261	239	233
<1.001.....	37	295	272	216
BIZKAIA BATEZ BESTE	108	124	111	72
GIPUZKOA				
>50.000.....	2	68	1	248
20.001-50.000.....	5	128	93	126
10.001-20.000.....	14	205	159	177
5.001-10.000.....	13	181	147	135
1.001-5.000.....	22	202	144	105
<1.001.....	27	409	371	338
GIPUZKOA BATEZ BESTE	83	143	93	185
EAE				
>50.000.....	6	84	58	73
20.001-50.000.....	13	97	74	99
10.001-20.000.....	25	162	133	134
5.001-10.000.....	27	176	143	147
1.001-5.000.....	76	247	215	197
<1.001.....	91	334	307	278
EAE BATEZ BESTE	238	124	97	108

Aztergai izan dugun aldian, 4 udalek aurrezki gordin ez-finantzario negatiboa dute. Gainera, beste 5 udalen finantza kargak aurrezki gordin ez-finantzarioa gainditu du. Horrek guztiak esan nahi du 9 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak. Aurrezki gordin ez-finantzarioa negatiboa duten horietan edota finantza karga hau baino handiagoa denetan, zorpetzeko marjinarik batere ez dutela aintzat hartuta, 9 udal hauen autofinantzaketarako gaitasuna zero da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aitortutako eskubide garbiei dagokienez, batez besteko indizeak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	AURREZKI GORD. INDIZEA	AURREZKI GORDIN EZ-FINANT. INDIZEA
